

## BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

### 2055

*AGINDUA, 2015eko apirilaren 29koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014ko Euskadi Ikerketa Saria Zientzia eta Teknologia alorrean esleitzen duena.*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren azaroaren 30eko 323/2010 Dekretuak Ikerkuntzako Euskadi Saria arautzen du, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz. Hezkuntza, Hizkuntza eta Kulturako sailburuaren 2014ko azaroaren 4ko Aginduak Ikerkuntzako Euskadi Sarirako deia egiten du, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz Zientzia eta Teknologia alorrean.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko apirilaren 9ko Aginduak, Ikerkuntzako 2014ko Euskadi Sarirako epaimahaia izendatzen du, Zientzia eta Teknologia modalitatean.

Euskadi Ikerketa Saria arautzen duen azaroaren 30eko 323/2010 Dekretuaren esleitzeko prozedurari buruzko 7. artikulua betez, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2014ko Euskadi Ikerketa Saria, Zientzia eta Teknologia alorrean, José Félix Martí Massóri esleitzea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 29a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.